

CHILLIDA LEKU MUSEOAREKIN ZUZENeko DIRULAGUNTZA HITZARMENA

1. Onuraduna

Zabalaga Leku, S.L

IFK: B20882445

Egoitza soziala: Barrio Jauregi, 66. 20120 Hernani

Legezko ordezkaria: Mikel Chillida Gutiérrez

NAN 72480433G

Kontu Korrontearen zenbakia: IBAN ES8900495310812495060030

(titularra: Zabalaga Leku, S.L)

2. Hitzarmenaren xedea

Eduardo Chillidaren lana ezagutaraztea, hernaniarrak museora hurbiltzea eta Hernaniko Udalaren eta Chillida Lekuren arteko elkarlana eta koordinazioa sustatzea.

3. Hitzarmenaren justifikazioa

Chillida Leku Museoa Hernaniko lurretan kokatua dagoen izen handiko museoa da eta Hernaniko Udalaren nahia da herritarrei bertara gerturatzeko aukera eskaintzea eta erraztea, hernaniarrengan artearekiko interesa sustatzeko.

Aukera ezin hobe da, halaber, herriko ikastetxeetako haur-nerabe eta gazteei museoa ezagutzeko aukera eskaintzeko, hezkuntza arloan artea lantzeko beste bitarteko bat izan dezaten, gazteengan artearen inguruko ezagutza eta hausnarketa sustatzeko.

Bestalde, Hernaniko Udalak kultur egitasmo zabala eskaintzen die herritarrei eta baita herriko eragileekin elkarlanean beste hainbat egitasmo antolatu ere. Chillida Lekuk kultur ekimen ugari antolatzen ditu eta ingurune paregabea du era horretako ekimenak aurrera eramateko. Zer egokiago Udalaren eta Museoaren arteko elkarlana eta koordinazioa kultur eskaintza zabaltzeko eta osatzeko.

Turismoaren arloan, berriz, Hernaniren tamaina eta ezaugarrietako herri batek izan dezake zer eskainia Chillida Lekura kanpo-herrietatik datozen bisitariei. Eremu horretan ere elkarlana onuragarria izan daiteke bai museoarentzat eta baita Udalarentzat ere.

Horregatik guztiagatik, Hernaniko Udalak Chillida Leku Museoarekin elkarlanean aritu nahi du eta, horretarako, ondoko puntuetan jasotzen diren konpromisoak eta ardurak hartuko dituzte bi aldeek.

UDALAREN konpromisoak honako hauek dira:

- a) Urteko 15.000 euroko dirulaguntza ematea onuradunari.
- b) Izendatutako diru kopurua bi epetan ordaintzea: % 60 hitzarmena sinatzean eta % 40 memoria aurkeztutakoan (beranduenik urtarrilaren 31n).
- c) Chillida Lekuri buruzko informazioa eta publizitate foiletoak Hernaniko Turismo gunean jartzea.
- d) Sarrerak erostea. Hainbat ekimenetarako (Udako Solstizioa) Udalak 100 sarrera erosiko ditu bere irizpideen arabera banatzeko eta beste 100 sarrera aldez aurretik saltzen lagunduko dio Biteri kultur etxean.
- d) Museoarekin adostuta urtean antolatu ditzakeen 3 ekitaldiei dagokienean, ekitaldi horien antolakuntza, sarrera salmenta eta abar. udalaren ardurapean egongo dira.

CHILLIDA LEKU MUSEOAREN konpromisoak honako hauek dira:

- a) Museoak urtean bisita gidatu bana eskainiko die herriko ikastetxeei. Ikastetxeak izango dira erabakiko dutenak urtean zein ikasmailari eskaini bisita (Haur Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta Batxilergoko 2. mailara bitartean).
- b) Doako sarrerak udalarentzat: Udako Solstizioaren eta Museoen Nazioarteko Egunaren harira, 20na sarrera emango dizkio Udalari.
- c) Sarreretan beherapena hernaniarrei: Udako Solstizioan, Museoen Nazioarteko Egunean nahiz Chillida Lekun antolatzen diren erakusketa, ikastaro edo formakuntza saio edo Chillidaren figura landu eta zabaltzeko helburua duten beste jarduera batzuetan, hernaniarrek % 50eko beherapena izango dute, beti ere aforoaren % 20ra mugatuz onuradunen kopurua.
- d) Udalari aukera emango dio urtean 3 ekitaldi antolatzeko museoan, beti ere, aurrez adostuta, hala nola, Sagardo Eguna, aurkezpen, emanaldi edo udalak egoki ikusten duen beste edozein kultur edo ekitaldi sozial.
- e) Eduardo Chillidaren figura zabaltzeko prestatzen diren jardueren programaren berri (erakusketa, formakuntza saio, eskola eta abar) emango dio udalari museoak. Urtero aurkeztuko dio udalari

programazioa, udalak bere oniritzia eman dezan. Bestalde, ekimen horien komunikazio-euskarrietan udalak babesle gisa agertu beharko du.

f) Chillida Lekuk antolatzen dituen erakusketa, ikastaro, tailer edo beste jardueretan kontuan hartuko ditu tokiko sortzaileak, eta urtean, gutxienez, bi jarduera antolatuko dira Hernaniko artistekin.

g) Chillida Lekuren webguneak lotura egingo du Hernaniko Udalaren Turismoko webgunearekin.

h) Chillida Lekuko taberna eta jatetxe zerbitzuetan Beterri Km0-n antolatuta dauden nekazal ekoizleen produktuak erabiliko dira.

BI ALDEEK hartzen dituzten konpromisoak

a) Genero parekidetasuna: bi erakundeek artean antolatzen diren jardueretan eta komunikazio-euskarrietan pertsonen arteko berdintasuna bermatuko da eta irudi nahiz hizkera ez-sexistak erabiliko dira.

b) Euskarari lehentasuna: bi erakundeek artean antolatzen diren jarduerak (idatziz nahiz ahoz) eta komunikazio-euskarriak (publizitate-kartelak, sarrerak, online informazioa, sare sozialak), euskaraz edo ele bietan izango dira, jasoleen arabera. Ele bietan izatekotan, euskarak lehentasuna izango du. Ikastetxeetako bisita gidatuak eta ikasleen esku jartzen diren informazioak euskara hutsean egongo dira.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa

- Zenbatekoa eurotan: 15.000 euro urteko
- Partida zenbakia: 1.02.481.02.334.00. 2021 (6733) Chillida Leku Hitzarmena

5. Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak

Dirulaguntzaren % 60 (9.000 euro) ordainduko da hitzarmena sinatzerakoan.

Dirulaguntzaren % 40 (6.000 euro) ordainduko da zuriketa egindakoan, beranduenik, hurrengo urteko urtarrilaren 31rako.

6. Dirulaguntzaren justifikazioa

- a.) Epea: hurrengo urteko urtarrilaren 31 (beranduenez).
- b.) Diruz lagundutako jardueraren memoria.
- c.) Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna (eta Gizarte Segurantzza, hala badagokio).
- e.) Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.

7. Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmena urtean behin berrikusiko da eta gehienezko iraupena 4 urtekoa izango da (2021-2024), beste 4 urtez luzagarria, alde bietakoren batek kontrakorik adierazten ez duen bitartean.

8. Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Dirulaguntza hau arautuko du, dirulaguntza emateko irizpen honetan ezarritakoak ez ezik, Dirulaguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoak, bai eta Udal Dirulaguntzen Araudiak.

Zuzeneko dirulaguntzetarako baldintzak:

-Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusia egotea (887/2006 Errege Dekretua, 65. artikulua).

9. Onuradunaren aitorpena

Onuradunak aitortzen du ez dagokiola dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan dirulaguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

10. Helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Dirulaguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da dirulaguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, dirulaguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako dirulaguntzaren

zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

11. Kontabilitate liburu eta erregistroak, dirulaguntza egoki justifikatzea bermatzeko eta finantzak kontrolatzeko eskatuak

Onuradunak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzekoa zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.

Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioiko organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europako Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.

Hernanin, 2026ko maiatzaren 19an

Hernaniko Udalaren izenean
Xabier Iertxundi Asteasuinzarra, alkatea

Chillida Lekuren izenean,
Mikel Chillida Gutiérrez
ordezkaria

